

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1435

EBAZPENA, 2020ko martxoaren 7koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria, zeinaren bidez formulatzen baita Uraren Euskal Agentziak Urbina Ezan, (Kuartango, Araba) ur-emarien neurketa-estazioa eraikitzeke sustatutako proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko txostena.

AURREKARIAK

2022ko azaroaren 29an, Uraren Euskal Agentziak eskaera bat egin zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan, ingurumen-inpaktuari buruzko txostena egin zezan Urbina Ezan, (Kuartango, Araba) ur-emarien neurketa-estazioa eraikitzeke sustatutako proiektuari buruz, bat etorri Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, eta betiere ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren esparruan, zeina Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikuluan eta hurrengoetan baitago arautua.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikulua betez, kontsulta-izapidea abiarazi zuen 2023ko urtarrilaren 11n, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko. Kontsulta-izapidea egiteko lege ezarritako epea bukatuta, zenbait txosten jaso dira hainbat erakunderen aldetik, eta emaitzak espedientean daude jasota. Era berean, organo substantiboari jakinarazi zitzaion hasiera eman zitzaiola izapideari.

Bestalde, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok izan zezan ingurumenaren arloan egoki iritzitako oharrak egiteko aukera.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-inpaktuaren txostena egiteko behar beste judizio-elementu, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79. artikuluari jarraikiz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluari jarraikiz, ingurumen-ebaluazioko prozeduraren mende jarriko dira, nahitaez, ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuak, eta horien aldaketak eta berrikuspenez, ingurumen-babes maila handi bat bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Proiektuak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedura sinplifikatua behar du; izan ere, proiektua Abenduaren 9ko Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 76.2 artikuluan jasotako kasuetako bat da, lege horren II.E. eranskineko 3. puntuan sartuta dagoena: «Beste proiektu batzuk, II.D eranskinekoak ez direnak, zuzenean edo zeharka, bakarrik edo beste plan, programa edo proiektu batzuekin batera, eragin nabarmena izan badezakete naturagune babes-tuetako batean edo natura-ondarea kontserbatzeko araudiaren arabera babes-araubidea duten naturaguneetan».

Urbina Ezako ur-emarien neurketa-estazioa «Baia Ibaia»ren ES21100206 KBEan eta haren babes-eremu periferikoan kokatuko da.

Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta proiektuaren ingurumen-dokumentua zuzena dela eta indarreko araudian ezarritako alderdiekin bat datorrela, ingurumen-inpaktuaren txosten hau egiten du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, bera baita horretarako eskumena duen organoa, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenean) xedatutakoaren arabera. Txosten honetan, proiektuak ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen edota, bestela, zer baldintzatan garatu behar den proiektua, ingurumena behar bezala babesteko.

Xedapen hauek hartu dira kontuan: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kuartangon (Araba), Urbina Ezan ur-emarien estazio bat eraikitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko txostena formulatzea termino hauetan:

A) Proiektuaren xedea da zehaztea zer lan egin behar diren ur-emarien estazio bat eraikitzeko Baia Ibairen erdialdean, Aprikanoko (Kuartango) hirigunetik ibaian gora, 500 bat metrora.

B) Ebazpen honetan, zeinaren bidez Urbina Ezan ur-emarien estazio bat eraikitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko txostena ematen baita, proiektuaren ingurumen-dokumentuaren edukia aztertzen da, bat etorritz Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.F eranskinean ezarritako irizpideekin:

1.– Proiektuaren ezaugarriak.

Ur-emarien estazioaren elementurik garrantzitsuena neurketa-zabortegea da, zabortege bikoitza motakoa, zeharkako sekzioan V simetrikoaren forma duena. Ingeles eredua edo Crump ere esaten zaio.

Zabortegearen hormak inklinatua daude 2/1 ezpondarekin (H/V); horrek esan nahi du 21,12 metroko zabalera duela gailurrean, eta 17 metrokoa ibilguaren kotan. Zabortegeko ezpainaren maldak hauek izango dira: zeharkakoa, 20H:1V, puntu baxua ibilguaren erdian duela, eta, luzetarakoak, berriz, 2H:1V eta 5H:1V, ibaian gora eta ibaian behera hurrenez hurren.

Ibilguaren gainetik altuera 50 cm igotzean presa txikiak sortzen duen energia hidraulikoa disipatzeko, moteltze-ontzi bat diseinatu da, 7,75 metro inguruko luzera eta 40 cm-ko sakonera dituen eta ontziaren zolaren gainetik 40 cm eta ibilguaren gainetik 20 cm dituen presa txiki mailakatu batean amaitzen dena (ibilguaren barruko irtengunea finkatzeko eta energia behar bezala disipatzen dela bermatzeko balio du). Horrela, eta arrain-faunari trabarik ez sortzeko, gune bat sortuko da, arrainak bertan egon daitezen zabortegeko presa txikia igotzen hasi baino lehen.

Eragindako ibilgu-zatian sekzio erregular bat lortzeko, ertzak harri-lubeta lehorreko hormekin kanalizatuko dira, 2H/1V maldarekin, hormigoizko harri-lubeta baten gainean zimendatuta. Harri-lubetaren gehieneko altuera 2 m-koa da. Ubideratzearen guztizko luzera 32 metrokoa da eskuineko ertzean, eta 22 metrokoa ezkerreko ertzean. Zabortegiaren parean, ubideratzearen altxaerek hormigoitutako harri-lubetazkoak izan beharko dute, ura ez iragazteko eta neurtu ahal izateko.

Ezkerreko ertzeko harri-lubeta ibaitik egingo da; izan ere, ertz horretan pista bat badago ere, pistaren eta ibaiaren artean kanal bat dago, landaredi oparoarekin, eta hori mantendu egin behar da. Horretarako, eskuinaldean ur-agor bat egin behar da, lan-eremu lehor bat lortzeko, bertan hondeatze-lanak egiteko eta harri-lubeta jartzeko. Eskuinaldeko harri-lubeta ezkerraldekoaren antzekoa izango da, baina motzagoa. Kasu honetan ere beharrezkoa da ur-agorrak egitea, lan-eremua lehor mantentzeko.

Ubideratzea egin ondoren, urak desbideratuko dira, ur-agorren eta/edo behin-behineko hodi baten bidez, eta arrokan dragatze- eta hondeatze-lanak egingo dira, ur-emia neurtzeko estazioko presa txikia egiteko proiektuan adierazitako kotetan. Hondeaketa egin ondoren, neurketa-presa txikiaren eta moteltze-ontziaren zolarria egingo da.

Ur-emia neurtzeko estazioak neurketa-etxola bat izango du, ibaiaren eskuinaldean. Etxola horretan (4,30 x 3,00 m), neurtzeko, biltegitatzeko eta datuak transmititzeko ekipoa jarriko dira, baita tornu elektriko bat ere, ur-emarien zuzeneko neurketak egiteko errotatxo bidez. Tornuari eusteko kablea ainguratua egongo da: mutur bat etxolan, eta beste muturra 3,20 m-ko altuera duen eta ibilguaren kontrako ertzean ainguratuta dagoena zutoin batean bermatuta. Tornu elektrikoaz gain, 2 zunda eta aluminiozko bi erregeleta jarriko dira, ibaiaren ur-maila irakurtzeko. Ekipoen funtzionamendurako behar den energia elektrikoa eguzki-plaken bidez lortuko da; plaka horiek etxolaren estalkian jarriko dira.

Proiektuan, sarbide berri bat planteatzen da, 4 metroko zabalerakoa: Jokanorako egungo bidetik abiatuko da, eta etxolarako eta ibaiaren ibilgurako sarbidea izango da. Etxolaraino doan bide-zatia (1. ardatza esaten zaiona) 145 metro luze da; ibairaino doana (2. ardatza), berriz, 125 metro. Azken bide hori beharrezkoa da kontrol-atalaren mantentze-lan erregularrak egiteko.

Obra egiteko epea 6 hilabetekoa izango dela aurreikusten da.

Aurreikusten da 2.130 m³-ko lur-mugimenduak sortuko direla guztira, eta horietatik 1.970 m³ soberakinak izango direla. Material horiek ezin badira erabili beste obra edo betelan batzuetan, baimendutako zabortegiren batean kudeatuko dira.

2.– Proiektuaren kokalekua.

Urbina Ezako ur-emarien neurketa-estazioa «Baia Ibaia»ren ES21100206 KBEan eta haren babes-eremu periferikoan kokatuko da. «Baia Ibaia»ren ES21100206 KBEa dekretu honen bidez onartu zen: 35/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen.

Proiektuak eragindako ibai-zatian, ibaiertzeko landaredia nabarmentzen da, kontserbazio-egoera onean dagoena; eremu hori Batasunaren lehentasunezko intereseko habitaten barruan dago: 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak. Sarbide berriaren 1. ardatzaren mendebaldearen ondoan, 4090 «Txilardi lehor oromediterraneoak» habitata dago.

Proiektuaren sustatzaileak helarazitako dokumentazioaren arabera, eragin-eremuan ez da hauteman arriskuan den florarik.

ES21100206 «Baia ibaia»ren KEBak fauna-komunitate interesgarria du. Ur-emariak neurtzeko estazioaren eremuan, Interes Berezikiko Eremuak daude, mehatxatutako espezie hauekin: bisoi europarra (*Mustela lutreola*), igaraba (*Lutra lutra*), uhalde-enara (*Riparia riparia*), mazkar arantzaduna (*Cabitos calderoni*) eta iparraldeko katxoa (*Squalius pyrenaicus*). Espezie horiek guztiek kudeaketa-plan bat dute Araban.

322/2003 Foru Agindua, azaroaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* Bisoi Europarra Kudeatzeko Plana onartzen duena.

880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa, Arabako Lurralde Historikoan *Lutra lutra* Igaraba Kudeatzeko Plana onartzen duena.

22/2000 Foru Dekretua, martxoaren 7ko Diputatuen Kontseiluarena, *Riparia riparia* «Uhalde Enara» hegazia Kudeatzeko Plana onartzen duena.

339/07 Foru Agindua, apirilaren 18koa, galzorian dagoen eta babes-neurri bereziak eskatzen dituen *Squalius pyrenaicus* «Iparraldeko Katxoaren» kudeaketa plana onartzen duena.

340/07 Foru Agindua, apirilaren 18koa, galzorian dagoen eta babes-neurri bereziak eskatzen dituen *Cobitis calderoni* «Mazkar Arantzaduna» arrainaren Kudeaketa Plana onartzen duena.

Badago mehatxatutako beste espezie bat bizi den Interes Berezikiko Eremu bat ere, Arabako Lurralde Historikoan onartutako Kudeaketa Planik ez duena: Amiltxori Txikia (*Ixobrychus minutus*). Gainera, proiektuaren eragin-eremuak bat egiten du beste «Lehentasunezko Banaketa-eremu» batzuekin. Bertan, Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan jasotako espezieak daude, mehatxu-kategoria ezberdinetakoak: gardatxoa (*Lacerta lepida*), baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) eta ibai-kabuxa (*Salaria fluviatilis*).

Baia ibaiaren balio ekologikoaren ondorioz, lotura-interes bereziko ibai-tarte gisa katalogatzen da, EAEko korridore ekologikoen sareko beste elementu batzuekin lotua: Gorbeiaiko KBEak, Urkabustaiz uharte-hariztiak, Arkamo-Gibijo-Arrastaria eta Ebro ibaia.

Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren arabera, proiektuaren eragin-eremua 50 zk-ko unitatearen barruan dago. Unitate horrek (aparteko paisaia gisa sailkatuta dago) Baiaren ibilgua eta hari lotutako ibaiertzak hartzen ditu barnean, ibaitik hurbil dauden erkamezti-zati batzuekin batera.

Kultura-ondareari dagokionez, ibaiaren ezker aldean, ur-emia neurtzeko estaziotik metro batzuk ibaian gora, presa txiki bat eta ubide bat daude, Aprikanoko errota lotuta daudenak. Errotak IV. mailako babesa du Kuartangoko HAPOn Aurrerapenean (izapidetzen ari da).

3.– Izan dezakeen inpaktuaren ezaugarriak.

Inpaktu esanguratsuenak obra-fasean gertatuko dira, harri-lubetazko hormak egingo direlako, ibaiaren ohandea erregularizatuko delako eta ur-emia neurtzeko etxola berrira iristeko bidea eraikiko delako. Jarduketa horien bidez, ibaiaren tarte bat zurrunduko da (ezker aldean, 21,8 m, eskuinaldean 31,5 m eta ohandean 14,5 m), eta ibilguari lotutako ibaiertzeko landaredia kenduko da: haltzadi bat, Batasunaren lehentasunezko intereseko habitata (91E0*).

Tornuaren kableari dagokionez, 3 metroko argia utzi behar da tornuko kablearen inguruan; beraz, ibilbidean nahikoa izan liteke zati horrekin bat egiten duten adarrak inaustea, bi ertzen arteko ibilbidean dauden zuhaitzak moztu behar izan gabe.

Harri-lubetak eraikitze ur-agorrek egiteak eta ibilguaren ohandaren ondekak urak ur-agorren edo behin-behineko hodian bidez desbideratzeak aldatu egingo du, aldi baterako, arrain-faunaren eta ornogabeen habitata. Ekintza horien ondorioz, obra-fasean jaitzi egingo da faunarentzako habitataren kalitatea; proiektuaren ondorioak minimizatzeko, obrak agorraldian egingo dira, eta ibaian dauden intereseko espezieen aldi sentikorrek errespetatuko dira, bai obrek zuzenean eragindako tartean, bai ibaian behera.

Tornuari eusteko zutoina Aprikanoko erroren kanaletik 0,5 metrora jarriko da, eta ez da aurreko kusten egitura horri eragingo zaionik, betiere obra ez bada hor sartzen. Horretarako, dagozkion neurri zuzentzaileak aurreikusi dira.

Beste inpaktu batzuk ere gertatuko dira, hala nola ibilgura solido esekiekin kargatutako urak joatea edo obretan erabilitako makineriak ustekabeko isurketak egitea.

Obrek irauten duten bitartean, hau da lurrak mugitzean, makinak erabiltzean eta ibilgailuekin lan egitean, airearen kalitatea jaitzi egingo da, partikula esekiak eta partikula kutsatzaileak ugarituko baitira, eta zarata handitu egingo da.

Aurreikuspenen arabera, obren inpaktuak ez dira garrantzitsuak izango; izan ere, eragin-eremua txikia da, eta obrak exekutatze denbora laburra. Horrez gain, ur-masaren egoera ekologikoa ere ez da kaltetuko.

Ur-emia neurtzeko estazioak funtzionatzen duen bitartean arraintzako hesi-efektua minimizatzeko, uren indarra moteltzeko ontzi bat eraikiko da, urlo bat sortzeko, eta hor arrainak egon ahal izango dira zaborte giko presa txikia igotzen hasi aurretik. Diseinu horri esker, arrainak presa txikitik igo ahal izango dira: ziprinidoen kasuan, 0,56 m³/s-tik gorako eta 6 m³/s-tik beherako emarietara, eta salmonidoen kasuan, a 8,9 m³-ko emarietara. Proiektuko kalkuluen arabera, arrainek egun batzuetan (urteko egun guztien % 54tik % 65era) ez dute izango pasatzeko oztoporik, urtaroren eta arrain-moten arabera (ziprinidoak/salmonidoak).

Beraz, ustiapen-fasean ez da aurreko kusten uren kalitatearen gaineko eraginik, eta ez dira arriskuan jartzen Ebroko Plan Hidrologikoa inplikatutako ur-masarentzat ezarritako ingurumen-helburuak.

Ingurumen-dokumentuak berariazko atal bat du, baloratzen duena nola eragiten duen proiektuak kontserbatu beharrezkotzat jotzen dituen «Baia Ibaia / Río Baia»ren ES2110006 KBEan eta haren funtsezko elementuetan. Obrek ibai-sisteman eragin dezakete, egiten ari diren bitartean uren kalitatea jaitzi daitekeelako; beraz, neurri zuzentzaileak aplikatuko dira inpaktua minimizatzeko. Hartzaduari ere eragiten dio –Batasunaren lehentasunezko intereseko habitata da (91E0*)– baina kuantitatiboki KBEko hartzadiaren azalera osoaren ehuneko oso txikiari, eta, beraz, ingurumen-dokumentuak ez du inpaktu esanguratsutzat jotzen.

Ingurumen-dokumentuak ondorioztatzen duenez, proiektuak, betiere ingurumen-dokumentuan proposatzen diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, ez du arriskuan jartzen Baia ibaiaren KBEaren balioetako bat bera ere, eta, gainera, zerikusia du lekuaren kudeaketarekin, «ibai-korridore ekologikoa» kontserbatu beharrezko funtsezko balioaren 5. helburu operatiboarekin lotzen baita: «KBEaren eremuko ibai-ibilguetan emari naturalen erregimena bermatzea». Helburu horrek eskatzen du aztertzea zein diren ibai-ekosistemaren prozesuak mantentzeko beharrezkoak diren gutxienezko emariak; horretarako, jakina, ahalik eta datu erreal eta fidagarri gehien lortu behar dira, estazio berriari esker lortuko direnak, zalantzarik gabe.

Ingurumen-dokumentuak baloratu du zer kalteberatasun duen proiektuak istripu larri edo hondamendien aurrean, eta, kontuan hartuta zer izaera duen jarduketak, zer neurri txikiak dituen eta zer arrisku gutxi eragiten dituen, proiektua oso kalteberatasun txikikotzat jotzen da. Ibaian behera

dagoen giza populazioarentzat, berriz, proiektuak eragin positiboa izango duela aurreikusten da, estazio berria EAEko uholdeen alerta-sarean sartuko baita.

Ur-emia neurtzeko estazioak ur-laminaren gorakadak eragingo ditu aztertutako errepikatze-denboretan (10, 100 eta 500 urte), baina elementu edo azpiegitura garrantzitsuak ez dira urpean geratuko; uholde-arriskuak bertan dauden laborantza-eremuei eragiten die, eta, beraz, ikuspegi hidraulikotik obra egokitzat jotzen da.

Bigarrena.— Ebazpen honetan, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, proiektuak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan eta Urbina Ezako (Kuartango, Araba) neurketa-estazio berria eraikitzeko proiektuaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharrik egon ez dadin, betiere, ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak txertatzen badira.

Babes- eta zuzenketa-neurriak indarrean dagoen araudiaren arabera exekutatu dira, hurrengo apartatuetan adierazitakoa kontuan hartuta, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, organo substantiboak Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Neurrien norainokoa eta kontrolerako langile kopurua egokiak izan beharko dira ingurumen-dokumentuan eta ingurumen-txosten honetan ezarritako kalitate-helburuak bermatzeko.

Neurri horiek guztiak obrak kontratatzeko baldintza-agirietan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua ere izan beharko dute. Era berean, jardunbide egokiak aplikatuko dira obretan.

Honako apartatu hauetan adierazitako neurriak gehitu beharko dira.

Natura-ondarea babestera zuzendutako neurriak:

– Obra ES2110006 «Baia Ibaia» KBEan garatuko da, eta, beraz, arau hauetan datozen helburu, jarraibide eta arauketen arabera exekutatu beharko da: 35/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituen, eta 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, Ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (HBBE) arau orokorrak onartzen dituen.

– Obrak Arabako Foru Aldundiaren flora eta fauna basatiko espazio babestuak kudeatzeko zerbitzu arduradunen onespina izan beharko du; hala badagokio, neurri osagarriak ezarri ahaliko ditu obra exekutatzeko, dela exekutatzeko moduari dagokionez, dela garatzeko momentuari dagokionez, kontuan hartuta zein diren ibaian dauden fauna-espezieen aldi sentikorrak.

– Obrak hasi aurretik, adituek eraginpeko eremuan ibaiertzetako egoera aztertuko dute, jakiteko ea habiak edo gordelekuak dauden, eta, hala izanez gero, horren berri emango diote KBEa kudeatzen duen organoari, kasuaren arabera jarduteko jarraibideak eman ditzan.

– Ibilguan lanak hasi aurretik, eta KBEaren organo kudeatzaileak hala zehazten badu, arrantza elektrikoak egingo dira eragindako zatian dagoen arrain-fauna kentzeko eta eremu seguru batera eramateko, eragin-eremutik ibaian gora.

– Tornuko kableak disuasio-elementuak izango ditu, hegaztiekin talka egin ez dezaten.

– Jarduketak gauzatzean, ibaiertzeko landarediari eta ertzei ahalik eta gutxien eraginez egingo dira lanak. Lanak hasi aurretik, zehatz-mehatz mugatu eta in situ balizatuko dira lanak egiteko

nahitaez moztu beharrekoak ez diren zuhaitz eta zuhaitz-unada autoktonoak. Gainera, kontserbatu beharreko zuhaitzak behar bezala babestuko dira, sustrai-sistemak kolperik eta kalterik ez izateko. Adierazitako eremutik kanpo ustekabeko eraginik gertatuz gero, neurri zuzentzaile eta lehengoratzeko-neurri egokiak ezarriko dira.

- Obrak egiteko ezinbestekoa den azalera bakarrik erabiliko da lanerako. Lurzorua erabiltzea eragiten duten lanak eta instalazioak proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Obrako materialek ahalik eta espazio txikiena hartu beharko dute, eta makineria eta ibilgailuak ezingo dira horretarako prestatutako eremuetatik kanpo ibili.

- Obren Zuzendaritzak onartu beharko du non egongo diren zehazki eremu horiek, egokitzapen-lanak hasi baino lehen eta ingurumen-inpaktu gutxiena sortzeko irizpideak kontuan hartuz.

- Haltzadian zuhaitzak moztu eta inausteko lanak naturagune babestua kudeatzen duen organoaren zerbitzu teknikoek gainbegiratuta egingo dira.

Ura eta lurzorua babesteko neurriak:

- Oro har, eraikuntza-fasean, ahalik eta efluente kutsatzaile gutxien sortuko da, eta ahalik eta material xehe eta gai kutsatzaile gutxien isuriko da drainatze-sarera.

- Aurreikusten bada eremu batzuetan materialak ibilguetara arrastan joan daitezkeela edo isurketa lausoak gerta daitezkeela, jalkinei eusteko hesiak jarriko dira, ingurumen-dokumentuan aurreikusitakoak.

- Ibilguen barruan erabiltzen diren makinek eta elementu osagarriek, langileen jantziak eta oinetakoak barne, Uraren Euskal Agentziak ezarritako desinfekzio-protokoloak bete beharko dituzte zebra-muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) hedapena saihesteko.

- Berariaz debekatuta egongo da makinak konpontzea edo makinei olio aldatzeko zeregin horretarako berariaz ezarritako eremuetatik kanpora. Obrak egiten ari diren inguruan ez balego azpiegitura egokirik zeregin horietarako, berariazko eremu bat egokitu beharko da. Esparru hori mugatuta egongo da, eta zorua iragazgaiztu egin beharko da; era berean, efluenteak jasotzeko sistema bat eduki beharko du, lurzorua eta urak ez kutsatzeko.

- Hidrokarburoak xurgatzeko gai den material espezifikoak eduki beharko da eskura, istripuzko isuri edo jarioen bat gertatuz gero berehala aplikatu ahal izateko.

- Obrak egiten diren bitartean uraren mailatik behera hondeatzen diren materialak ibilguaren zati lehorrean utziko dira aldi baterako, betiere ez badute oztoporik sortzen obrak egiteko, edo berariaz diseinatutako instalazioetan, helmugara garraiatzeko eta han onartzeko hezetasun-mailara iritsi arte.

- Makinak ezingo dira ibilgutik igaro, salbu eta ibilgura sartzeko, harri-lubetak egiteko eta ibilguaren ohandzea erregularizatzeko behar-beharrezkoak diren puntuetan. Puntu horiek behar bezala seinaleztatu eta balizatu beharko dira, ibaiertz eta ibaiertzeko landarediari ez eragiteko.

Zarataren eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak:

- Lanek iraun artean, beharrezkotzat jotzen diren jardunbide egokiak aplikatuko dira, ordutegien mugaketari, obrako makineriaren mantentze-lanei eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

- Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko

dira kanpoan erabiltzeko makinen soinu-emisioei buruz indarrean dagoen legerian ezarritako agin-duetara, eta, bereziki, eta hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osa-garrietan ezarritakora.

Hondakinen kudeaketara bideratutako neurriak:

– Proiektuaren exekutatze- eta funtzionatze-faseetan zehar sortutako hondakinen kudeaketa Ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta arategi zehatzetan xedatutakoaren arabera egingo da.

– Hondakinak kudeatzeko hierarkia-printzipioei jarraituz, hondakinak sortzea prebenitu behar da, edo, hala badagokio, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan ezarritako lehentasun-hurren-kerari jarraituz kudeatu behar dira; hau da: prebenitzea, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea, balorizatzeko beste modu batzuk, balorizazio energetikoa barne, eta, azkenik, deuseztatzea.

– Hondakinak kasu honetan baino ezingo dira deuseztatu: aldezturik behar bezala justifi-katzen denean ezinezkoa dela hondakinak teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren ikuspegitik balorizatzea.

– Berariaz debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdinetako hondakinak elkarrekin edo beste hondakin edota efluente batzuekin nahastea. Hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek biltzeko eta biltegitratzeko baliabide egokiak jarriko dira, aipatutako nahasketa horiek ekiditeko.

– Hondakinak zabortegetan utziz ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuak eta hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak xedatutakoaren arabera ere kudeatuko dira hondakin-degira bidali beharreko hondakinak.

– Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak independenteak izango dira, baldin eta, tipologia dela eta, isurketa baten ondorioz nahasiz gero arriskutsuago bihurtu badaitezke edo kudeaketa zaildu badezakete. Orobat, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 21. artikuluan hondakinak biltegitratzeari, nahasteari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dira, eta itxita egongo dira kudeatzaile baimendu bati entregatu arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.

– Aurrekoaren haritik, eremu jakin bat egokituko da aldi batean hondakin arriskutsuak pilatzeko; hala nola olio-potoak, iragazkiak, olioak eta pinturak. Gainera, hondakin geldoak biltzeko bera-riazko edukiontziak jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneeetatik bereizita.

– Aipatutako ontziak edo bilgarriak argi eta modu irakurgarri eta ezabaezinean etiketatu beharko dira, baita indarreko araudiaren arabera ere.

– Apirilaren 8ko 7/2022 legearen 29. artikuluari eta Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatuko da sortzen den olio erabilia.

– Olio erabiliak, baimendutako kudeatzaile bati entregatzen zaizkion arte, estalpean biltegitra-tuko dira, behar bezala etiketatutako ontzi estankoen barruan. Gainera, zoru iragazgaitz baten gainean egon beharko dute, beste kubo edo ihes eta isuriei eusteko sistemen barruan.

– Araudi hori betetzea errazagoa izan dadin, lanen ondorioz sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak prestatu beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistemok, eta haien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, erregai eta

produktuak biltegiatzearen, ez dira inola ere efluente kontrolatu gabeak sortuko makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz.

Kultura-ondarea babestera bideratutako neurriak:

Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoari jarraituz, lurrak erauzteko obretan arkeologia-izaerako aztarnarik aurkituz gero, berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzari, eta azken horrek zehaztuko du zer neurri hartu behar diren.

Paisaia babestera eta kaltetutako eremuak lehengoratzera bideratutako neurriak:

– Proiektua exekutatzean eragindako eremu guztiak leheneratu beharko dira, haltzadi kantauriarreko berezko espezieak landatuta. (*Alnus glutinosa*, *Fraxinus excelsior*, *Corylus avellana*, *Cornus sanguinea*, *Crataegus monogyna*, *Salix sp.*, etab.).

– Obrak hasi aurretik, modu frogagarrian kuantifikatu beharko da, «in situ» neurtuta, zein den ur-emaria neurtzeko estazioari lotutako elementuak behin betiko okupatzeko edo obra-fasean zehar aldi baterako okupatzeko suntsitu beharreko haltzadi-azalera osoa Leheneratutako azken azalera, gutxienez, obrak exekutatzean ibaiertzean kendutako landarediaren azaleraren berdina izango da.

– Behar adinako azalerarik ez badago obra-eremuan kendutako haltzadiaren azalera osoa leheneratzeko, beste lursail degradatu batzuk landareztatu beharko dira, nahiz eta ez izan proiektuak zuzenean eragindako lurrak, Baia ibaiaren KEBaren barrukoak, eta, beharrezkoa bada, desjabetu beharreko azalera handitu beharko da. Neurri hori KBEa kudeatzen duen organoak eta Uraren Euskal Agentziak batera zehaztuko dute, eta obra exekutzeko baldintza-agirian jasota geratuko da.

– Lur-mugimenduek iraun bitartean, landare-lurra kendu, metatu eta bereizita zabalduko da, betiere eragindako eremuen leheneratzea eta landareztatzea errazte aldera.

– Landareztatzea ahalik eta lasterren egingo da, espezie autoktonoak erabiliz, higadura-prozesuak eta ibilguetarako solido-arrasteak ekiditeko; horrela, habitat naturalizatuak sortzen lagunduko da, eta ahalik egingo dira habitat horiek inguruko landaredia naturalarekin lotzeko.

– Leheneratzeko lanak egin bitartean, landare inbaditzaileen hedapena galarazteko ekintzak gauzatuko dira. Ildo horretan, bereziki kontrolatuko da landare-estalkia leheneratzeko lurren jatorria, eta, ahal dela, ez da erabiliko horrelako espezieek kutsatu ahal izan duten lurrik.

– Baso-lanetarako erabiltzen diren makina guztiek garbi egon beharko dute, lokatz- edo lur-arrastorik gabe, inguruan koka daitezkeen espezie inbaditzaileen propagulu edo haziak hedatzeko arriskurik ez izateko.

– Era berean, ahal den guztietan, espezie inbaditzaile horiek errotik kenduko dira jarduera-gunetik.

Jardunbide egokien sistema bat ezartzea.

Langileek jardunbide onen sistema bat hartu beharko dute, helburu hauek ahalik eta gehien bermatzeko:

– Obrak okupatzen dituen mugak kontrolatzea.

– Natura-interes handiko landaretza-eremuen gaineko eragina kontrolatzea.

– Ibilguen gaineko eta haien ertzeetako landarediaren gaineko eragina kontrolatzea, baita ibaiari lotutako fauna-espezieen gainekoa ere.

– Hondakin-isurketarik ez egitea, eta olio-isurketen ondorioz edo lurra leku batetik bestera eramateagatik lurzorua eta ura ez kutsatzea.

– Proiektuak eragindako herriguneetako biztanleei enbarazurik ez eragitea zarata eta hautsarekin.

Garbiketa eta obra-akabera.

Obra bukatu ondoren, garbiketa-kanpaina zorrotz bat egingo da; proiektuak ukitutako eremua batere obra-hondakinik gabe utzi beharko da, eta aldi baterako instalazio guztiak deseginda.

Ingurumenaren jarraipena.

Ingurumenaren jarraipena egiteko, aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoa bete beharko da; horretaz gain, jarraian zehazten diren kontrolak egin beharko dira.

Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, bai eta neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsaziokoak zenbateraino bete diren jasotzeko erregistroa ere. Proiektua exekutatzean aldaketak egin badira, xehetasunez dokumentatu beharko dira. Ingurumenean duten eraginaren ikuspegitik justifikatu beharko dira aipatutako aldaketak. Horri dagokionez, obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipenari buruzko txosten osoa egin beharko da, eta indarrean dagoen legediak hondakinen kontrolerako, jarraipenerako eta onarpenerako jasotzen dituen agiriak erantsi beharko dira txosten horretan.

Obraren okupazio-mugen kontrola.

Egiaztatuko da lanen eremua proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela, aurreikusitako azalera baino eremu handiagoa hartu gabe.

Leheneratzearen arrakastaren kontrola.

Obra amaitu ondoko bost urteetan, aldizkako jarraipena egingo da, ikusteko zenbateraino lortu den proiektuak eragindako eremuak leheneratzea.

Egiaztatuko da haltzadiaren berezko espezieekin landareztatutako azalera bat datorrela ebazpen honetako neurri zuzentzaileetan jasotako baldintzekin.

Ur-emia neurtzeko estazioa arrainak igarotzeko egokia den.

Ingurumen-dokumentuan ezarritakoaren arabera, obraren berme-aldian, faunaren jarraipena egingo da jarduketa-eremuan, eta, horretarako, bisitak egingo dira sei hilean behin. Ikuskapen horien ondorioz ikusten bada fauna-espezieei mugitzea eragozten dien hesiak sortu direla, arazo hori zuzentzeko behar diren neurriak ezarriko dira.

Hirugarrena.— Zehaztea, lehenengo puntuan ezarritakoaren arabera, eta betiere ebazpen honetan jasotako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, baita sustatzaileak proposatutakoak ere –aurrekoen aurkakoak ez badira–, ez dela aurreikusten proiektua exekutatzeak ondorio kaltegarri adierazgarririk izango duenik ingurumenean. Hori dela eta, ez da beharrezkotzat jotzen Uraren Euskal Agentziak Urbina Ezan (Kuartango, Araba) ur-emia neurtzeko estazio eraikitzeko proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta aplikatzea.

Laugarrena.— Ebazpen honen edukia Uraren Euskal Agentziari jakinaraztea.

Bosgarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Seigarrena.— Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79.5 artikulua ezarritakoaren arabera, aipatutako proiektua gauzatzen ez bada Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko gehieneko epean, ingurumen-inpaktuaren txosten honek indarraldia galduko du, eta berezko dituen efektuak sortzeari utziko dio. Halako kasuetan, sustatzaileak berriro hasi beharko du proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 7a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.